



Astekaria



elgoi



# Josebaren neurriko Urrezko Bota

Olaso kalea 27 eta 54 A ELGOIBAR 20870  
Tel/Fax: 74 42 84



*Zur ta Lur*  
••••ALTZARIAK••••

Dekorazio proiektuak  
Altzarigintza integralak  
Altzari modernoaren  
denda berria  
Eskualdeko bakarra bere  
sektorean

Maiatzak 15 Astelehena

# SAN ISIDRO

## Eguna

## ARRATEN



### EGITARAUA

**Goizeko 11etan**, MEZA eta ortuarien bedeinkapena, bertsolari eta trikitilariekin.

**Jarraian**, "Getariako Txakoliña"ren eta bailarako gaztaren DASTAKETA.

**Eguerdiko 12,30etan**, GIZON-PROBAK ("Agorrixa", "Sakoneta"ren aurka) trikitilari eta bertsolariekin.

**Eguerdiko 2etan**, BAZKARIA Kantabria jatetxean. Bazkal ostean sei herrietako aitona amona nagusiei opariak banatuko zaizkie eta, mahaikideen artean sari bat zozketatuko da.

**Arratsaldeko 5etan**, IDI DEMAK (Altzubarren, Ixama eta Gorixo).

**Jarraian**, SARI BANAKETA:

1. 150.000 pta eta DEBEMENek emandako garaikurra.
2. 140.000 pta eta INEKOk emandako garaikurra.
3. 130.000 pta eta ARRIZABALEk emandako garaikurra.

Lehenengo 15 hiltzeak bizkorren egiten dituenarentzat UNZUE pentsuen saria.

**Iluntzean**, Elgoibarko UNCETA ferreteriak emandako karretila zozketatuko da.

### AUTOBUSAK

**Goizeko 10,15etan** ELGOIBARKO AUTOBUS GELTOKIAN (San Migeleko kruzian).

**Goizeko 10,20etan** MENDAROKO AUTOBUS GELTOKIAN (estaziño aurrean).



ANTOLATZAILEA:

**DEBEMEN**

MENDI NEKAZARITZA ELKARTEA



LAGUNTZAILEAK:

DEBEMEN, GETARIKO TXAKOLINA, INEKO, ARRIZABAL, KORTABERRIA PENTSUAK (UNCETA), UNCETA FERRETERIA, EROSKI, KUTXA, KANTABRIA JATETXEA ETA DEBA BEHEKO UDALAK.

elgoi**BARREN**

Nafarroa enparantza 2

☎ 74 41 12

**ARGITARATZAILEA:**

Elgoibarko Izarra.

**LAGUNTZAILEA:**

Elgoibarko Udala.

**HIZKUNTZA ARDURADUNA:**

Anjel Ugarteburu.

**KAZETARIAK:**

Ainhoa Lodoso,

Jasone Osoro.

**MAKETATZAILEAK:**

Maite Rementeria,

Edu Sanz.

**PUBLIZITATEA:**

Nekane Etxaniz.

**ADMINISTRAZIOA:**

Josune Fernandez,

M. Angeles Ortuoste.

**KOLABORATZAILEAK:**

Aitor Agirrezabala, Andres

Alberdi, Esteban Antxustegi,

Pello Arrieta, Felix

Arrizabalaga, Belen

Arrizabalaga, Mikel Artola,

Mikel Cornejo, Izaskun

Elizburu, Jon Etxabe, Jon

Eugi, Koldo Galdona, Jose

Mari Galdos, Ina

Garagarza, Joseba

Gorosabel, Lorea

Gorostiaga, Xabier Gorriti,

Ana Igartua, Maite Iriondo,

KOKOE, Joseba Konde,

Eduarne Korta, Imanol

Larrañaga, Antonio Matias,

Susana Mujika, Maite

Solozabal, Karmelo

Urdangarin, Aitor Zabaleta,

Julen Zabaleta.

**BANAKETA ARDURADUNA:**

Imanol Larrañaga

**INPRIMATEGIA:**

Gertu koop. E.

(Zubillaga Oñati)

**TIRADA:** 3.500 ale

**LEGE GORDAILUA:** SS-1.038/92

**ISSN:** 1133-021X

elgoi**BARREN**ek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.



## Utopiaren hermosuria

**1936**ko gerrate garaian jaio eta gerra ondoko urteak bizi izan zituen pertsona baten solasalditxo bat besterik ez duzue hau.

Gure bizitzako lehen urteak gogoan ditut: gosea, miseria, beldurra, sumisio osoa eta pobrezia zen etxeetan eta kalean nabari zen giroa, herrietako jauntxo bakan batzuentzat ezik. Herriko jende gehiena apal apal zegoen: alde batetik, eskola maisuen faszismo kutsuko heziketa eta, bestetik, elizgizonen poderio izugarria. Hitz batean, sinetsi ezineko errepresio giroan bizi zen gizartea. Baina giro hark sortu zuen, gazteengan batez ere, etorkizunerako beste irakurketa bat. Gazte askorengan errotu zen giro hura arlo ezberdinetan: ideal erlijioso, politiko, sozial, abertzale... edo denetarik zer-bait.

Amets egiteko aukera eder bat zen hura. Ideal haietan murgilduriko jendearen parte-hartzea oso garrantzitsua zen bizi izan duenak dakien bezala. Gizarte aske eta berdin batekin amets egin eta sinesteko aukera izan genuenontzat pena merezi izan zuen.

Gizonak gizonengan izan zuen esplotazioa deseginda izango zela amets egiteko aukera izan genuen, esplotaziorik gabeko gizarte batez hitz egiten ziguten garai hartako jakintsuek. Marxen teoriak bide onera iristean gertatuko zela zioten. Euskadiren askatasunari buruz, Euskadiko Gobernu batez hitz egiten ziguten jakintsuek. Zinez ezina zirudien amets eder bat zen. Idazle eta intelektualek idealismoz eta utopiaz idazten zuten aldizkarietan.

Guardia Zibilek alde egingo zutela gure herrietatik, Ikurriña non eta noiznahi jarri genezakeela, Ertzantza izango zela herriko polizia lanak egiteko, gure herriko mutilak izango zirela ertzain... Hau dena pentsatzen amets egin genuen.

Baina urteak pasatu dira. Bai dela kuriozoso, ezinezkoak ziruditen prozesuak eboluzioarekin nola normalizatzen diren. Demokrazia edo gure gehiengoaren agintea gure artean dugu. Euskal Gobernu legeztatua, sortu ziren alderdi politikoak, sindikatu libreak, Ikastolak, publiko nahiz pribatuak, Ikurriña nonahi jartzeko aukera, Ertzantza gure kaleetan, bota dute Berlingo harresia, Errusiako Plaza Gorria zuri bihurtzen, Txina ere gizarte kontsumo bideetara, Europa batua ere hemen dugu, infernuko sua ere badirudi itzaltzen ari dela.

Zertaz amets egin behar dugu oraingo gazteriak eta gizarteak?

Iritsi al gara ondasun osoko gizarte batera?

Nik neure zalantzak ditut eta maila horretara iritsi ez garela esatera ausartuko nintzateke. Bizilagunen %25 langabezia dago, gizarte baloreak oso urri, ilusio gutxi eta kezka beteriko gizarte batean murgilduta sentitzen naiz.

Gaurko gizartea gorputz lirain eta osasuntsuago baten jabe dela bistan dago. Kontsumismoaren sareetan harrapatuta gaudela uste dut. Komunikabideak dituzten bide eta medio indartsuen bidez irentsi gaituzte. Gauza denak beharrezko bihurtu zaizkigu, baita banku eta kutxa kredituak ere, zorretan sartzeko erraztasunak emanez eta beraien menpe jarritz.


Eboluzio honek ekarri digun egoera honetan, nik diot, non daude intelektualek, non katedratikoak, ikastunak, unibertsitariak? Non daude idazle utopikoak?

Inor ez al da ausartzen beste gizarte mota batez hitz egiten? Gizartea hobetzeko inork ez al du ideiarik? Non daude Marxen teoriak?

Pasadizu gisara egin dudana solasalditxoak bukatzeko, esan beharra daukat, guk, batzuek behintzat, sentitu genuela UTOPIAREN HERMOSURIA.

**Felix Arrizabalaga**

*Eusko Jaurlaritzako  
Kultura Sailak, Foru  
Aldundiak eta  
Elgoibarko Udalak  
diruz lagundutako  
aldizkaria*





## GALDERAK

**Ba al dago asmorik Santa Ana kaleko aparkalekuak bukatu eta Andikano baserrira bitartean argiak jartzeko?**

Udaletxeko teknikariarekin egon gara eta berak esan digunez aparkalekuak amaituta omen daude. Argiei dagokienean, berriz, Udalak ez dauka inolako asmorik aipatutako bidean argirik ipintzeko.



## KEXAK

- Andra batek deitu digu zera esateko: "Asteburuan farmazia baten zerbaitek erostia nahi eta Plaentxiraino jun bihar izan nitzan, eta ez dao deretxorik!!"



## TXALOAK

Aste honetan bi txalo heldu zaizkigu:

- Bata, Joseba Etxeberria zoriendu nahi duen futbolzalearena da.
- Besteak, Errotatxo elkarte txalotu nahi du antolatu duen Prebentzio Asteagatik eta, batez ere, Pepe Reiren hitzaldiagatik. Azken honek gizarte honetan dagoen ustelkeriaren zati bat ikusten lagundu omen dio.

# ESKUTITZAK

## Autopista libre!

**B**adira hilabete batzuk Mal-tzaga eta Elgoibar arteko errepidean obrak hasi zirela. Ordu-tik hona egunero ibiltzea tokatzen zaigunok karabanak, berandu aile-gatzeak eta autopista ordaindu beharrak jasan behar izan ditugu.

Eibarko Udalbatzak eta Elgoi-barko HBk autopistaren liberaliza-zioa eskatu zuten, obrak ziren bitartean. Elgoibarren berriz, PNV, PSOE eta EA kontra azaldu ziren.

Obra hauen ondorioak denok jasan behar ditugulako, ordua da autopista behingoz liberalizatze-ko. Denon onerako, obren martxaren onerako,

**AUTOPISTAREN LIBERALI-ZAZIOA**

**Elgoibarko Herri Batasuna**

## Eskerrak guztioi

**E**lgoibarko Udaletxeko Gizar-te Ongizate Sailak, eskoleta-rako Osasun Jairako prestatu ziren paellak egiten parte hartu zuten guztiei herriaren aurrean eskerrak eman nahi dizkie.

Honako hauei eskerrak eman nahi dizkiegu: Goiko Errota, Kon-porta, Kimetz, Biar Dana, Gure Bide, La Union, Casa Galicia eta Herri Gain elkarteak; Zaharren Bil-tokiari; Ikasbateko sukaldeko lanbi-de ikastaroko ikasleei (IMH); Herri Eskolako sukaldeko arduraduna den Santiago Abad Miguel jaunari; Mintxetako mantenuko arduraduna

den Reyes Mellado Rebollori; Altzo-lako Urak eta Monica Arenas-i, Ongi-zate Sailean praktiketari ari den ikas-leari.

**Ongizate Saila**

## "Ekintza bandalikoak"

**Z**uek -PNV, PSOE, EA ez dau-kazue "auzotarren integritatea arriskuan jartzen duten ekintza bandalikoak" kexatzeko zilegitasunik, zuek izan zaretelako Elgoibarren gertatuta-ko "ekintza bandaliko" handiena burutu duzuenak: ehundaka milioitan baloratutako etxe hura -Gaztetxea-deuseztatzean. Honetarako, herria armaz jositako kaputxadun matoiez bete zenuten, jendea jo eta ikaratu.

- Ez al da ekintza faxista hutsa, gazteok libreki elkartzeko geneukan leku bakarra suntsitzea, bertan burutzen ziren ekintzak gustuko ez zitzaizkizuelako?

- Zenbat mehatxatu, zauritu eta kolpatu ditu Ertzantzak herri honetara iritsi zenetik?

- Ondo iruditzen al zaizue, zuekin hitzegitea eskatzen zuen gazte talde bat bi ordu luzez lokal itxi batean gaseatzea?

- Gas kamara naziez oroitzen al zarete?

- Ertzantzaren eskutik hainbat gaztek pairatutako tortura, tratu txar eta irainei buruz ezer esan al dezue?

- Ez al da guzti hau herritarren bizia arriskuan jartzea?

- Non daude giza eskubideak?

Aspaldidanik, zuen zapalketa jasaten dugunok irri egiten diogu zuen biktimismoari. Agur bero-bero bat zuentzat.

**Gazte Asanblada**

## HARRIGORRIGOIKOERROTABERRITARRAK



# E

rretratu zaharra 1949. urtean ateratakoa dugu. Udaltzeko aretoa nagusia n Elgoibarko

futbol taldearen garaipen bat ospatzen ari ziren eta behean, Ramon Galdosen eta Bernardo Zubiaurreren familia eta lagun talde bat elkartu eta gauza bera ospatzeari ekin zioten. Etxebizitzatik mahaia eta aulkiak atera, bazkari gozoa prestatu eta kafera beste zenbait gonbidatuz, hara hona egun hartan elkartu zirenak:

Ezkerretik hasita: **Pedro Izagirre (†)**, **Luis Artetxe (serenoa eta lurperatzailea) (†)**, **Carlos Arrese (Diario Vasco ko berriemilea) (†)**, **Bernardo Zubiaurre (Udaltzain nagusia) (†)**, **Itziar Konde**, **Ramón Galdós** eta **Jose Mari Galdós**.



## ZELETA Barazkiak

*BARATZÇINTZA* tradizionala eta babestua.

*Landare exberdinak produzitzen ari gara: tomate hibridoak, piperra, ...*



Betiko dendetan aurkituko dituzu gure landareak:

*Luis Kortaberria*  
"Otsua"

*Txarriduna*  
PENTSUAK

*INEKO*  
Nekazari Kooperatiba

ZELETA BASERRIA ☎ 74 30 22 - San Migel Auzoa - ELGOIBAR



bizpairu pertsona soilik baimentzen dira eginkizun honetarako eta batzorde erretoreak gastua onartzen duenean ekiten zaio ordainketari.

### **Abantaila ekonomikoak**

Merkatuan erosgai dauden etxeekin konparatuta, aldea egon ohi da bukaerako prezioan. Gazteei begira, eta ez gazteei begira bakarrik, eskaintza tentagarria izan daiteke. Anbotoko gestoreen esanetan, ehuneko 30 merkeago ateratzen dira kooperatibako etxebizitzak. Mendaroko Ormaetxeko lehen etxeekin konparatuz, zerbait garestiago aterako dira oraingo bigarren hauek. Izan ere, lurraren kostua gehitu behar zaio bukaerako prezioari, oraingo lurrak ez baititu Udalak eman, pribatuak dira eta erosi beharra dago. Gainera, Ormaetxe poligonoak Mendaroko urbanizazio garestiena dauka, bertan sortuko

baita herriaren gunea, Udaletxea, Plaza, frontoia... Etxebizitzaren bukaerako prezioa (garajea, ganbara... barne) 14 milioi ingurukoa izango dela aurreikusten dute Anbotokoek. Aurreko proiektuan, etxeen bukaerako prezioa aurrez hitzartutakoa baino %1 garestiago ateratu zen, zimentazioan arazoak egon zirelako. Normalean, hala ere, aurrez hitzartutako prezioa izaten da bukaeran ordaintzen dena.

### **Elgoibarren ere bai**

Mendaroko esperientzia Elgoibarren burutu daiteke Anbotokoen ustez. "Interesa duen talde bat biltzea da lehenengoa; bostekin nahikoa litzateke lehen urratsak emateko". Lurren erosketa, Udalarekin negoziazioak lurren birkalifikazioak eta antzerakoak Anbotoren esku geratzen dira. Norbaitek interesa balu 79 20 48/77 14 11 zenbakietan lor dezake argibiderik Xabier Pagaldaireren eskutik.

## **ORMAETXE**

### **Kooperatiban eraikitako lehen etxeak**

**M**endaroko Ormaetxe auzoan etxeak eraikitzeko sortu zen kooperatiba bat duela hiru urte. Era honetako lehen esperientzia zen. Mendaroko jende gazteak osatu zuen batez ere "Ormaetxe Elkarte Kooperatiboa" zeritzona. Bertoko juntako presidente hiru urtez izan zen Joseba Etxeberria mendarotarrak, horrelako proiektu batean sartzera bultzatu zuten arrazoiak azaldu dizkigu. Mendaroko Udalak Ormaetxe alderako diseinatutako plan partzialan, "konpentsazio plan" moduko bat egin zuen. Udalak bertan zeuzkan lurrak enkantean ateratu eta "promozio municipal" moduko zerbait eginez, kooperatiba bati etxebizitzak

eraikitzeko aukera eskaini zitzaion. Izan ere, azken 20 urteotan ez da Mendaron etxebizitzarik eraiki eta proiektu honekin Udalak promozio "kolektiboa" sustatu nahi zuen pribatuaren kaltetan. Udalak lurren zesio moduko bat egin zuen eta horren truke, kooperatibak 250 metro karratuko bajuak eman zizkion behin etxeak bukatutakoan.

### **Kooperatibaren eraketa**

Lista batzuk jarri ziren etxebizitza erosi nahi zuen jendeak izena eman zezan. Bi baldintza zeuden: mendarotarra izatea eta etxebizitzarik ez edukitzea 100 kilometrotan. Izena eman zuten gehienak gazteak ziren. 18 etxebizitza eraikiko zirenez, hauen artean sortu zen kooperatiba. Promotora eratuta, teknikoak kontratatatu zituzten, Arrasateko Anboto inmobiliarioak, eta Udalak proiektua onartu bezain pronto lanari ekin zitzaion. 1989an obrak hasi zirenetik, eta bukatu arte, hiru bat urte igaro ziren plano orokorra amaitzeko zegoelako. Gai nontzean urte t'erdi edo bi urte behar izaten dira etxea eraikitzeko.



■ ■ Ormaetxe auzoan eraikitako etxebizitza hau Kooperatiban egindako lehendabizikoa da.

**MIREN**  
arraindegia



Santa Ana  
74 34 49  
**ELGOIBAR**


**MALAPE**

**ELENA**

ileapaindegia

Depilazio Elektrikoa

San Franzisko 49-1 tel. 74 11 89



**GARAY**



San Franzisko, 9. Tel. 74 13 92

## Zer da prebentzioa?

**J**akingo duzueenez, artikulua argitaratu orduko, Errotatxok antolatutako Prebentzio Astea burutzen izango da. Aste honen helburua, bere izenburuak azaltzen duen bezala, drogomenpekotasunen prebentzioa bultzatzea da. Baina, zer da prebentzioa? Zertarako? Nori zuzenduta?

Galdera guzti hauek erantzutea ez da batere erreza, batez ere, bi ziorengatik:

- Alde batetik, droga betidanik egon da gure artean, gizarte eta zibilizazio guztietan, askotan ohitura sozial bihurtu delarik. Izan ere, drogomenpekotasunak gizarteko desberdintasunetan oinarritzen diren fenomeno sozialak direla esan dezakegu.

- Bestetik, arlo askorekin erlazionaturik dago. Besteen artean aipa ditzakegu: ekonomia, politika, legea, osasuna... Pepe Reik, joan zen eguneko hitzaldian argi laga zuen bezala, droga eta berarekin lotua dagoen ustelkeriak agintari, polizia, epaile eta abarrengan bere sustraiak sartuz.

Horrexegatik, garrantzitsuena ez da nola edo zerekin drogatzen garen, baizik eta zergatik gertatzen den drogen kontsumoa eta eskabidea.

Aipaturiko arrazoiak aintzakotzat hartuz, ondorio bat agertzen zaigu nagusi: drogarekin bizitzen jakin behar dugu, bere menpe ez bukatzeko. Beraz, aurre egin behar diogu, neurri zehatzak hartuz, beste bide eta aukera batzuk zabaldu eta

garatuz.

Errotatxoren apostua garbi dago: kolektiboen papera indartu behar da eta horrekin batera, gure herriak eskaini ditzakeen aukerak landu. Hori dela eta, maiatzaren 6an herriko 37 kolektiborekin Prebentzio Eguna ospatuko dugu.

Orduan, nahi izanez gero, badago zereginik. Siadekok egindako inkestan argi agertzen dira eman behar diren urratsak, beti elkarriketan oinarrituz eta ez errepresioan.

Laburbilduz, prebentzioa guzti honetan datza: informazioan, hausnarketan, trafikoa salatzean, instituzioetatik neurriak martxan jartzea esijitzean (hauen artean gazteen alternatibak kontuan hartuz)...

Horregatik, Errotatxok zera jarraituko du aldarrikatzen: **PREBENTZIOA DA BIDE BAKARRA.**



ARRATE PEREZ

**Mandiola S.L. Egurrak**

Domingo Arrizabalaga

SALEROSKETA  
BASOEN MOZKETA

Juan Mugerza 3. ☎ 74 12 56 - (mugikor.) 908 17 10 42



## Zer da zuretzat drogen prebentzioa?



**JUANITO GOROSTIZA**  
68 urte, jubilatua

Hitzak esaten dau zer dan. Gauza asko sartzen dia hor, informazioa ematia, zenbat eta gehixao hobe, eta gauzak eitzeko boron-datia eukitzia.



**KRISTINA ETXEBERRIA**  
26 urte, langabetua

Lenengo informazioa. Drogak, gogorak baka-rrik diala pentsatzen dogu. Bigunak ere, tabakua eta alkohola adibidez, drogak diala erakutsi biharko litzake.



**AGURTZANE EPELDE**  
34 urte, irakaslea

Jendeari adierazia dro-gak hartu ezkeru datozen kaltiak. Informazioa badao baina arriskuan jausi aurretik ein bihar da lan; mentalidade aldaketa bat bihar da.



**M. PILAR CABUE**  
60 urte, etxekoandrea

Informazioa nahikoa ematen da etxean, eskolan, telebistan... Larunbatetan alkohola baino gehiago hartzen da, droga ekartzen dutenak harrapatu beharko lirateke.



**JUAN CARLOS ARROYO**  
32 urte, elektrizista

Jaiotzetik, haurrak dro-gen aurka hezitu, etxean zein eskolan. Gazteei begira aisialdiko alternatibetarako lekuak sortu beharko lirateke.



**GUILLERMO IRAEGI**  
34 urte, rotulista

Heziketaren bitartez prebentzioarantz bideratu behar dira haurrak. Garrantzitsua litzateke droga legalen zein ez legalen akzesuari oztopoak jartzea.

*okindegia eta gozotegia*

San Frantzisko, 4  
Tel. 74 07 35  
**ELGOIBAR**

**ASESORIA  
GOAR**

**AHOLKULARITZA**

- . KONTABILITATEA
- . AHOLKULARITZA FISKALA
- . LAN AHOLKULARITZA
- . ALLIANZ ERCOS ASEGURUAK
- . MULTINACIONAL ASEGURADORA ASEGURUAK

San Bartolome 1 behea. Tel: 74 26 74- 74 02 34. Fax: 74 21 29

## ■ “Zinea eta osasuna” programaren azken saioa

Udaleko Drogomenpekotasunen Prebentziorako Zerbitzuak antolatzen duen “Zinea eta Osasuna” programaren azken saioa izango da hil honen 10ean. Hezkuntz ertainetako ikasleei eta gurasoei zuzendutako azken filmea “Los peores años de nuestra vida” izenburukoa da. Hiru emanaldi izango dira, goizeko 10etan eta 12,30etan ikasleentzat eta arratsaldeko 7etan hauen gurasoentzat. Filme honi buruzko eztabaida hilaren 17an izango da. Gurasoek, pelikulan agertutako gaiez gain, autoestima eta antzerako arazoak ere ikutuko dituzte.

## ■ Batzokiaren urteurreneko afaria

Batzokiaren inaugurazioaren urteurrena ospatzeko PNVk afaria antolatu du hilaren 6an, larunbata, Pedro Muguruzako Batzokiko jatetxean. Arratsaldeko 8etan emango zaio hasera ekitaldiari bertan izango direlarik Jose Luis Larrea ekonomia sailburu izandakoa, Iñaki Azkuna osasun sailburua eta Josu Jon Imaz europarlamentaria. Afalostean Udal ordezkariak omenduko dituzte eta zerrenda berria osatzen dutenen aurkezpena egingo da. Izena emateko bi Batzokietara zuzendu.

## ■ Bolo finalak San Pedron

Larunbat honetan, hilak 6, Gipuzkoako Bolo Txapelketari dagokion azken tiraldia jokatu da San Pedron. Joan den astean San Migelen Azolaberri taldeko Bittor Astigarraga geratu zen aurrena, Agustin Irusta bigarren eta Jose Irusta hirugarren, biak San Migelekoak. Sailkapen orokorrean, banaka Angel Ibarluzea doa lehena, eta taldeka Azolaberri, atzetik San Migelekoak daudelarik. Hurrengo larunbatean, hilak 13, Plaentxin desenpateak izango dira eta sari banaketaren ondoren, Txurruka jatetxean, bazkaria eta nagusi bati omenaldia egingo diote.



**Gillermo Garate** PNV alderdiaren alkatetzarako hautagaiak eta Roman Sodupe Gipuzkoako Aldun Nagusirako hautagaiak hitzaldia eman zuten asteazken iluntzean Kultur Etxean. Elgoibarko alkatetzarako hautagaiak bere alderdiaren programaren oinarriak azaldu zituen bai eta datozen lau urteetarako asmoak ere. Joan diren lau urteak oparotasunaren urteak izan badira ere, datozenak ekonomikoki behintzat, kaxkarragoak izango direla aurreratu zuen. Roman Sodupek, bere aldetik, politiko batek dituen betebeharrak aztertu eta Gipuzkoako Aldundirako dituen asmoen berri eman zuen, “Gipuzkoa 95-96” programan bilduak daudenak.



**II. Haur Krosean** irabazle izan zirenak dauzkagu argazkian kopa eskuetan dutelarik. Honako hauek dira guztien izenak, lasterketak burutu ziren ordenaren arabera: Esther Bilbatua, Aitor Arrillaga, Desire Lopez, Andoni Gabilondo, Maria Maguregi, Markel Bergara, Ana Etxaniz, David Rodriguez, Amaia Polo, Jabier Muñoz, Mireia Huidobro, Jon Mekolalde, Oihana Chico, Imanol Calleja, Julia Quintana eta Gorka Sanchez. Aurten 382 haurrek girotu zituzten igandean herriko kaleak, guztiek domina jaso zutelarik eta lehen neskak eta mutilak trofeoa. Ikastolak Haur Krosea antolatzen lagundu zuten guztiei eskerrak eman nahi dizkie.

## Antimilitaristen mozioko puntu gehienak onartu ziren Udal Plenoan

Talde Antimilitaristak aurkeztutako mozioa, HBk torturaren aurka aurkeztutakoa eta hirigintzako zenbait gai izan ziren maiatzaren 27an izan zen plenoan eztabaidatu ziren puntu nagusiak. Horrezaz gain, 1995eko urtarilaren 1eko errolda datuak aipatu ziren eta horien arabera ikus daiteke aurten Elgoibarren 11.204 bizilagun daudela, iaz baino 125 pertsona gutxiago.

**U**rruzunoko zatikako proiektua egitea onartu egin zen 11 botu jaso baitzituen alde, HB abstenitu arren. Izan ere, HBko kide den Javi Agirrek azaldu zuenez, “Eusko Jaur-laritzak lege bat ezarri berri du eta hori ezagutu ondoren hasi beharko ginatke Urruzunoko proiektuarekin. Ez zerbait onartu eta ondoren aplikatu legearen ondorioak”. Lerun Txiki Morterika sailaren zatikako proiektuari dagokionean HBk aurkako jarrera azaldu zuen, Agirrerren hitzetan, “egitasmo hau errekarren moztearekin lotuta dago eta hor espekulazioa somatzen da, interes izkutuak”.

### Talde Antimilitarista

Elgoibarko Talde Antimilitaristak aurkeztu zuen mozioko puntu guztiak onartu ziren, 5.a, 7.a, 9.a eta 10.a ezik. Besteak beste, talde Antimilitarista talde modura onartu eta horrek suposatzen duen eskubide guztiak izateko aurretik legalizatu egin behar dela azaldu zuen Guillermo Garate kultura batzordeko lehendakariak. Barne sailburuari Ertzantzak intsumituak ez atxilotzea eskatzen zuen puntua ere bertan behera geratu

zen. Elgoibar herri ez militar izendatzea eskatzen zen puntuari dagokionean, Orueren hitzetan, “herri insumisoa jartzea balitz beste gauza bat litzateke”. PSOEek aurkako botuak eman zituen, HBk puntu guztien alde egin zuen eta PNVk zein EAK, aurrez azaldutako puntuak ezik, gainotzeko guztien alde egin zuten moziota onartuz.

### Torturaren aurkako moziota

HBk torturaren aurkako moziota eztabaidatu zen, “tortura Euskal herriaren aurkako tresna bezala erabiltzen da eta horren aurrean ez da ezer egiten”. Hori dela eta, “torturari ez, lege antiterroristari ez eta Guadia Zibilari ez” esatea eskatu zuten. Mozio honen aurrean, PNVk, EAK eta PSOEek elkarrekin burututako mozio alternatiboa auzeratu zuten, “Torturaren aurkako jarrera azaltzen dugu eta beste ezer baino lehen giza eskubiderik funtsezkoena defendatzen: bizia.”. Hiru alderdi hauen ustez “Ertzatza instituzio propioa da eta berak bermatzen ditu euskaldunon segurtasuna”. Hiru alderdiek aurkeztutako moziota onartu zen.



### Larunbat honetan irekiko da Eliza

Elizako obren lehen fasea bukatu da eta elizak atek irekiko dizkio berriro jendeari larunbatean, hilak 6. Larunbat honetan lehen meza emango da Elizan eta igandean ere, Jaunartzeak izango dira bi txandatan.

### Idazlan eta Marrazki Lehiaketako sarituak

Udal Liburutegiak Liburu egunaren inguruan antolatutako I. Idazlan eta Marrazki Lehiaketan saritutakoak honako hauek dira: marrazki lehiaketan lehenengo saria Ainhoa Garitagoitiarentzat izan zen eta bigarrena Joan Iriondorentzat. Aipamen berezia merezi izan zuten lehenik Mikel Elustondok eta bigarrenik, Jone Feijook. Idazlan Lehiaketan Nagore Escudero irabazle izan zen eta Josu Gabilondo irabazle orde. Sari banaketa datorren asteartean izango da, hilak 9, arratsaldeko 5,30etan Udal Liburutegian. Aurten 400 haurrek baino gehiagok hartu du parte eta denek jasoko dute oparixoren bat.

### Bandaren kontzertua

Bandak kalejira ondoren kontzertua eskainiko du igande honetan, hilak 7. Goizeko 10,30etan izango da kalejira eta 12,30etan Herriko Antzokian kontzertua. Sei obra joko dituzte: “La gracia de Dios” (Roig), “Tancredo” (Rossini), “Porgy and bess” (Gershwin), “La del manojo de rosas” (Sorozabal), “Happy song Selection n°1” (Cees Vlak) eta “Gloria al pueblo” (P. Artola), guztiak J. A. Osorok zuzenduak.

### Ate irekien eguna IMHn

Erreminta Makinaren Institutuak ate irekien eguna ospatuko du bihar, larunbata, goizeko 10etatik eguerdiko 2etara bitartean. Eguerdiko 12etan modulu ezberdinei buruzko informazio-hitzaldia emango da areto nagusian. Egun honen asmoa herritarrek ikastetxean burutzen den edozein ikasketari buruz argibideak jasotzeko aukera izatea da.

Tere Lodoso:

## "Betidanik gustau izan jataz eskulanak"

Tere Lodosoren bizitza aztertuz gero, argi geratzen da adinak ez duela egin daitezkeen gauzekin inolako zerikusirik. Gaur egun, hirurogeita bederatzi urterekin, EGUREk antolatzen duen esmalte ikastarora joaten da ikasle bezala, lehenago berak eman izan dituen

arren klaseak. Eskulanetan amorratua, denetarik egin izan du: kuadroak margotu, esmalteak, aguafuerteak, eskultura, gantxiloa, bainika... Emakume polifazetiko honek denbora erabiltzearen adibide bat eman digu; berak dioen bezala "saiatu ezker, asko ikasten da".

- Noiz hasi zinen esmalte-arekin?

- Oin dala hamaika urte. Lehenengo, gizon arjentinarrak batek ipini zaban kursillua eta hamar pertsonak edo egin genun. Eta haura amaitxu zanian zereginik bai, baina aurrerapekin ez, kursillua motza geratu zan. Orduan, pare bat urte pasau ondoren, Donostiara jutia pentsau naban eta urtebeteko ikastaro bat ein naban. Gero, han ikasitxakuakin zeozertxo abanzau gendun, behintzat rutinatikan irten. Kanpo haundixa da baina ez badizute erakusten, kursilluakin bakarrik motz geratzen da. Gero, sei zazpi urtian ni egon nitzan klasiak ematen, nakixan apurra erakusten. Gero istripua izan nabanian utzi bihar izan nion. Eta oin dala pare bat urtetik klasiatara etortzen naiz, afiziua daukat eta.

- Zenbatian egiten dira kursilluak?

- Urtian behin Diputaziuaren eta Udaletxian laguntzakin. Hogeita hamar orduko ikastaroak dia, egunian bi ordu ematen ditxugu. Honera pozik etortzen gera, denborapasa.

- Lan konstantea al da?

- Bai, afiziua izan behar da. Gainera, bista ona eta pultso ona ere



### "San Bartolome kalia betetzeko lain kuadro ditxut".

eskatzan ditxu.

- Lehen margotu ere egiten zenuen, ez?

- Bai, bueno, ni 47 urtekin hasi nintzen margotzen. Operauta egon nitzan eta zerbait egin bihar nabala eta, margotzen hastia erabaki naban. Lehen, gaztetan, dibujan ibilitxa nauan eta dibujau hobeto eitxen naban pintau baino. Gero, Mari Jose San Millanekin hasi nitzan eta harekin ein naban lehenengo kuadrua, berarekin hiru urtian egon nitzan. Gero Plaza Txikixan Fernando Beorlegi hasi zan klasiak ematen eta harekin beste gauza batzuek ere ein

nitxuan: aguafuertiak, eskultura, akuarela... ni danera apuntatzen nitzan. Beti pentsau izan dot harek eitxen badeu, nik ere ein neikela. Hori pentsautu ikasi eitxen da.

- Etxean, zuk egindako lan asko izango dituzu, beraz.

- Bai, betidanik gustau izan jataz eskulanak eta. Bueno, kuadroekin bakarrik etxia beteta daukat, San Bartolome kalia batetzeko lain ditxut. Armaixo gan guztiak kuadroz beteta dauzkat.

- Erakusketarik egin al ditxut?

- Neuk bakarrik ez, baina kolektiboan bai, ni esmaltekin, Mari Jose pinturiakin eta Amelia Gonzalez tridimensionalekin. Kuadro asko erregalau eta saldu ditxut baina erakusketak bat ez nuke egingo, ezta pentsau ere.

- Musika mundua ere hurbiletik ezagutu duzu.

- Bai, etxian daukazu musikuak eta! Josek, senarrak, gitarria jotzen zaban. Gaztetan Oñatira juten zan, Azpiazura ikastera. Oin lagata dauka baina kontziertuetara juten da. Gero, 27 urtian Bandako direktoria izan da, beraz... Eta ni bueno, pianua hasi nitzan jotzen bi urtian, baina esanietara jun bihar nitzala esan zienian bildurtu eta laga ein naban. Eta gero, ixa 25 urtian korura juten egon naiz.

- Aipatutako guztiaz gain, ba al duzu beste affiziorik?

- Gantxiloa, bainiak... nere arrea ere dana neuk ein naban. Irakurtzia ere asko gustatzen jata, nobelak batez ere. Azkenengo irakurri dotena "Philadelphia" izan da eta oso politxa iruditxu jata. Musikia entzulia ere asko gustatzen jata, baina ez "martilleo" hori, klasikoa, batez ere Rossini, Wagner etab.

BELEN ARRIZABALAGA



## FERISALTSAN

**Apirileko feriak ez zion kasu egin esaerari**

**E**saerak dioenez apirilean euria erruz egiten omen du. Azken aste-buruan, aldiz, ez da horrelakorik izan. Apiriletik maiatzera bitarteko saltoa giro ezin hobean egin da eta. Zapatuan, gainera, ohiko feriaz gain, hitzaldia izan zuten baserritar guztiak. Kultur Etxean nekazal arazoei buruz aritu ziren Iñaki Txueka nekazal alduna, Xalbador Gorostola Gipuzkoako Abelauskuntzako arduraduna, J.M. Aldanondo Mendietako arduraduna, J. Inazio Elkoro-Iribe alkatea, J.A. Iturbe Gipuzkoako Agrariako presidentea, Jon Arruti EMBAko presidentea, Agustin Irusta baserri gaietarako zinegotzia, Guillermo Garate PNVko alkategaia eta Iñaki Oñederra baserri gaietarako zinegotzi-gaia. PNVk antolatua, arratsaldeko 4,30etan izan zen aipatu hitzaldia, baserritarrak ederki bazkaldu, ferian buelta bat eman eta lagunei berbia eman eta gero.

Bestalde, maiatzaren 15ean ospatzen da



Larunbat arratsaldean nekazal arazoei buruzko hitzaldia izan zen.

San Isidro eguna. Elgoibar eta inguruetakoa baserritarrek Arraten ospatzen dute jaia. Goiz goizetik hasita, egun osoko egitasmoa antolatu dute aurten ere: meza, txakolina eta gazta dastaketa, gizon probak trikitilari eta bertsolariekin, anaiarteko bazkaria eta idi demak. Bazkarira joan nahi duenak Udaletxean jaso dezake txartela. Elgoibartik goizeko 10,15etan autobusa aterako da Arraterantz San Migeleko bidegurutzean dagoen autobus geltokitik.

**Santa Kutz eguna**

**M**aiatzaren 3a Santa Kutz eguna da. Aspaldiko usadioaren arabera, garai batean, herriko parrokoak San Roke auzoko baserri guztietako soroak bedeinkatzen omen zituen. Azkena Beraseta baserria izan ohi zen eta han egiten zuen jatordua parroko jaunak. Urteak pasa ahala ohiturak mantentzen diren arren, aldatetarik ere izaten da. Aurten, asteazkena, 11k aldera, auzokoak zein kaletarrak San Rokeko ermitan elkartu ziren. Atarian, Don Benantzio parrokoak baserrietako soro guztiak

bedeinkatu zituen ur eta erramu bedeinkatuen bidez. Ondoren, 11k aldera, meza izan zen. Ermita bete-betea ageri zen Santa Kutz eguna ospatu asmoz hurreratu zen jendetzarekin.



# Zer iruditzen zaizu Arrateko San Isidro



**B**aserritarren edo nekazarien eguna aspalditik hasita ospatzen da eta horretarako garai batean elgoibartarrak eta mendarotarrak Elgoibarren elkartzen ziren.

Orain dela berrogeita hamar urte egun handia izaten zen herriarentzat San Isidro Eguna.

Lehenbizi meza izaten zen, hamar t'erdietan. Jarraian, kontzejupeko leihotik Basarri eta Uztapide bertsolariak euren saioa egiten zuten. Ondoren bazkaria izaten zen Txarridunak trikitalariak alaitua. Bazkaria, gainera, ez zen nolana hiko: lehenbizi baba beltza azarekin egosia eta odolostea eta txarri saiheski osatua eta gero erredondoa saltsan. Kolore gorri gorriekin, arratsaldean Santa Klara eta Artetxeko proba lekuan jokatzeko ziren idi probak ikustera.

Orain hamarren bat urte, Eusko Jaurlaritza osatu zenean, Deba Beheko baserritarrak Arraten elkartzen hasi ziren egun hori ospatzeko. Ospakizuna antzerakoa, hau da, meza, bertsolariak, idi probak, bazkaria eta... Beste zerbait egiterik merezi al du? Betikoa da gehien gustatzen zaiguna. Agian urtean zehar ikusten ez dugun lagun hori ikusteko egun aproposa da, beharbada azarik eta baba beltzik ez da jango, zeren ohiturak eta aukerak aldatu egiten baitira, baina betiko ospakizunek jarraituko dute baserrian lana egiten duenik dagoen bitartean.

**Maritxu Loiola**  
Udaletxeko itzultzailea



**Manuel Aizpurua, 56 urte**  
**Oilokigoikua baserria (Deba)**

Urtero juten naiz eta aurten ere badakat juteko asmua. Neretzat oso ondo egoten da egun hori Arraten, lo unico egualdixan segurantzia. Ona egin ezker, dana ondo.

**Pedro Aranberri, 65 urte**  
**Sasiola baserria (Deba)**

Ez naiz sekula jun. Etxetik kanpora ertenaldixa Afrikan soldautzia in gendun guztien batzarrera bakarrik eitzen det urtian. Santuekin asko sinisten det baina Arratera juteko beste ez.



**Antonio Gorriti, 71 urte**  
**Arregitorre baserria (San Roke)**

Egun oso ona izaten da. Anaixakin juten naiz egun pasa, eguerdixan bazkarixa, arratsaldian probak... Nik neuk ez diot fallorik topatzen, ondo dao daonetan.

**Santi Lizarralde, 38 urte**  
**Agarre baserria (San Roke)**

Auzoko lagunak eta aitxa juten dia eta ni ere ahal dotenian, lanik ez dakatenian. Oso jai politxa itxen da, ez det somatzen faltarikan. Jendia gustora egoten da anbientian.



**Jose Manzidor, 71 urte**  
**Ibizar baserria (Itziar)**

Ez naiz izan ondik baina aurten jutekotan naiz Itziartarrak probetan parte hartu bihar dabe eta. Itziartik autobusa jarri dabe eta juteko asmua dakagu, animatzera.

**ALTZOLA-BERASETA BASERRIA**

**O**rain 10 urte egin zen Altzola-Beraseta baserrira-ko bide berria. Ordura arte bazegoen besterik baina kanteratik igo beharra zegoen eta bertan ibiltzen ziren kamioiak zirela eta ez zirela ez omen zen ibilbide batere eroso. Horrela bada, azkenean lortu zuten gaur egungo bidea egitea. Al-dapa dexente eta beste hainbeste errebueta pasa eta gero iritsi gara. Paraje benetan ederra, baserria ere parekoa, frontoi eta guzti, ataria larrosa gorritz jantzia.



Altzola-Beraseta da Altzolan geratzen den baserri bakarra.

**L**imusinak "bisitarako" dituzte, ez okelatarako. Hau da, udaberrian jaiotzen diren txahalak udara partean saldu egiten dituzte eta erosleek beraien baserrian hazten dituzte, behia bada behitarako eta idiskoa bada idiskorako. Bi seme dituzte eta haueri ez zaie baserrirako tira gehiegirik ikusten, "gazteenari zerbait gehiago baina...". Halere, Anjelitak aitortu digunez, "neri gaztetan ez jatan baserriko bizitza gustatzen. Nik beti esaten niuen aitxari eta amari nik kalera bajatzia nahi nabala bizitzera. Baina, azkenian neuk ere hemen amaitxu dot eta, egixa esan, ez naiz sekulan damutu. Asko gustatzen jata baserriko bizitza, animalixak...". Bira asko ematen ditu bizitzak eta gaur egun Anjelita da gozian goiz jeiki eta han eta hemen baserriko lanak egiteaz ardura-tzen dena, "nahiz eta semiek eta senarrak ere laguntzen dien. Halere, egixa da oin adelanto haundixak daudela eta horrek lana asko erraztu dabe, ez da lehen bezela. Gainera neri organizatzia gustatzen jata, organizau ezker, askoz erretzo itxen dia gauzak".

**Gaztaroa Altzolan**

Anjelitak Altzolan eman zuen bere haurtzarora eta gaztaroa. Gaur egun apenas ezer dagoen, garai batean giro handiko auzoa zen, "balnearixua zauan eta jendie ugari ibiltzen zan. Guk baserriko danak, berdurak eta esnia eta dana Altzolara bajatzen genduazen. Esko-

**ALTZOLA-BERASETA**

- **AUZOA:** Altzola.
- **BIZILAGUNAK:** Lucia Uria, 82 urte; Anjelita Badiola, 48 urte; Manuel Lazarobaster, 52 urte; Jose Manuel Lazarobaster Badiola, 22 urte eta Iñaki Lazarobaster Badiola, 17 urte.
- **LUR HEDADURA:** 63 hektarea.
- **ANIMALIAK:** Limusinak, ardiak, untxiak, oiloak, paitxak, zaldiak, behorrak...
- **PRODUKTUAK:** Barazkiak orokorrean, ortuan eta negutegian ateratakoak.
- **BIZIMODUA:** Baserritik ezezik, Manuel Lazarobasterrek kalean ere egiten du lan.

**SUTEA**

Orain bost urte inguru izan zen lehorte izugarria denok daukagu gogoan, "guk demaseko galeria izan gendun, igual 40 hektarea galdu jakuzen. Pinua sartuta geneukan, aitzitza izan zan lehenengua inguru guztian pinua sartu zabana. Bera hasi eta neure aitxak jarraitxu zaban. Pinua ugari hazi zan baina lehortia etorri eta harekin bat sutia sortu zan eta han galdu genduan dana. Ikaragarrixa izan zan, beldurgarrixa. Ez dao hitzikan haura esplikatzeke. Gero eta su haundixaua ikusten zan, hurreratzen. Eskerrak etxia ez zaban harrapatu! Pinutan zerotik hasi bihar izan ginan".

lia, lagunartia, mezia eta dana Altzolan itxen genduan guk. Oin diferentia da eta Elgoibarrera bajatzen gera". Sokasaltuan, izkutaketetan, taba jokuan... Denetarikoak ziren Anjelitaren haurtzaroko jokuak, "askotan etortzen nitzan lagunekin baserrira. Hemen pasatzen genduan arratsaldia, jolasian. Rekuerto oso onak daukat". Ospakizunak familia guztietan egoten dira eta Altzola Berasetan San Juanak ospatzeko ohitura izan dute beti, "lehengusuak eta danak elkartzen gera jaixetan. Senarrak aparteko bildotsa preparamatzen dau burduntzixan eta mahai bueltan jarritxa ederki egoten gera".

Seme gazteena pilotaria da, pilotan jokatzen du behintzat, "nahiko ondo dabil gainera eta gustatzen jakenego, entrena daixela, aber". Azkenengo uholdeetan lubizia izan zen baserri on-

doan. Lur hura kendu eta mubitu behar zela eta frontoi txiki bat eraikitzea okurritu zitzairen, "hartara, semiak badaka entrenatzeko tokixa. Lagunekin etortzen da batzutan".

Inguru guztiko baserri bakarra da, Altzolan geratzen den bakarra, etxe dotorea, frontoi eta guzti, iturri txiki bat bai eta askatxoa ere, ahate eta guzti eta orain, akaso, "pistinia ingo dogu. Asmua badakagu baina, ikusiko da...".

# Txomin Arrizabalaga:

**A** Orain 50 urte jaio zen Txomin Arrizabalaga San Migel bailarako Ziarda auzoan. 27 urte inguru direla lagunarte bat elkartu eta Mandiola enpresa sortu zuten. Beraien zeregina baserritarrei pinuak erosi eta egurra papelerara edota zerategietara saltzea da. Txomin errepresentante modura ibiltzen da. Gainontzean beste 35 pertsonak osatzen dute Mandiola, denen artean pinua ebaki, egurra jaso, transportea egin eta bestelako lanak egiten dituztelarik.

**- Pinua al da egurretan errege?**

- Gaur egunian bai. Berau da azkarren hazten dana eta. Oingo epokian azkar haztia inportantia da horrek ematen dabalako produkziua eta dirua.

**- Zein da pinuak hazteko behar duen denbora?**

- 30 ute inguru. Pinuan landaria sartu eta handik 30 urtera mozteko moduan dau. Beste arbola batzuk, enkanbio, askoz denbora gehixao bihar dabe, igual 500 urte eta baserrixarra ezin da hainbeste denboran zain egon, berak landatu daban zuhaitza hazitza ikusi barik eta etekinik etara barik.

**- Pinutan ba al dago alderik?**

- Bai, danian bezela. Ona izateko egurra fuertia izan bihar da, altua eta har gitxikua, lisua, hori da egur ona eta estimazio gehixen dakana. Gero tokixan arabera ere badao aldia. Pistan onak badia eta mendixak ez badaka malkarrik, aldatzik ez badaka, leku garbixa bada eta guretzako erretz ebakitzekua eta garraio alde-  
tik ere samurra, askoz hobia da. Egur ona eta leku ona bada askoz erretzau saltzen da eta preziaua ere hobia da.

**- Euskal Herria menditsua da, baina pinadi ugari al dago?**

- Normalian zati txikixak izaten dia, 3 hektarea inguruak. Badao bat 140 hektareakoa baina holakuak gitxi dia.

**- Zenbat pinu sartzen da hektarea bakoitzian?**

- 1600 pinu inguru sartu laikez hektarea batian baina gero numero horretatik asko galdu itxen da, entresakak itxen dia, batzuk moztu... Totalian 1600 pinu landatu eta gero 200 inguru salbatzen dia. Batzuk gehixao sartzen ditxue baina enbor estuko pinua izaten da. Guk normalian kubikaziua pagatzen dou, zenbat eta enbor lodixaua izan, orduan eta metro kubiko gehixao eukiko ditxu eta gehixao pagatzen da, hobia da eta. Horregatik, hobeto urtetzen da normal sartzia baina enbor lodikuak, asko eta estuak baino.

**- Zuek moztu eta gero, nora doa egurra?**

- Batzutan papelerara eta beste askotan zerrategira. Paletak itxeko erabiltzen da, enbalajerako, konstruktiorako... Gauza askotarako. Gero, egurrik onena muebliak itxeko deditzen da.

**- Zenbat ordu lanean egunian, Txomin?**

- Askok ordu asko. Goizeko 7etan ateratzen naiz etxetik eta gaueko 9ak arte ez naiz bueltatzen. Batera eta bestera ibili bihar beti, kotxiakin buelataka... Gainera gero etxian trunkil afaltzen egon biharrian beti dakazu telefonua zarataka, kutxaria ahuan eta telefonua belarrixan... Domekia hartzen dot trunkil trunkil egoteko. Baina gustoko lana da. Gainera oin adelanto asko dao eta asko erraztu da lana. Lehen ez zauan oingo motozerra arinik, ez kamioirik, guaririk... Asto-lan asko zauan. Hori aldatu egin da.

**- Baserrian jaio eta baserrian bizi zara.**

- Bai eta ez dakat asmorik kalera bajatzeko. Neri Donostiako Kontxan jarriko bazien etxia bizitzeko ez nitzake hara jungo.

## BERAKATZ FRESKUA

- JATORRIA: Asiatik eta Europatik dator berakatza. Egipziarrek landare zikintzat hartzen zuten eta horregatik ez zituzten hilobietan jartzen. Landare diuretiko eta antiseptiko da eta gosea sortzen du.
- FAMILIA: *Liliaceae*.
- IZEN ZIENTIFIKOA: *Allium sativum* L.
- KLIMA: Landare errustiko honek nahiz eta hotzari beldurrik ez izan, hobeto haz-

ten da klima epeletan.

- ZOLUA: Lur mota guztietara egokitzen da, beti ere oso hezea edota astuna ez bada.
- EREINTZA: Ekaina erdi aldera jasotzen da berakatza.
- BERAKATZ FRESKUAK: Berakutzen zati berdea aprobetxatzen da, bulboa oraindik sortzen dagoenean.





## Amaia Mendikute

### Fruta saltzailea



- **Zein frutarekin parekatuko zenuke zure burua?** ▶ Tomate batekin agian, berehala gorritzen naizelako.
- **Zure bizitzako une garratz bat?**  
▶ Ez zait tokatu mementu txarrik, mementuz.
- **Eta mementu gozo bat?**  
▶ Dendia zabaldu eta jendia etortzen hasi zanian.
- **Zein da zure “sagar tentagarria”?**  
▶ Zigarroa erretzia eta atzazkalak jatia.
- **Zerk merezi du bizitza honetan ahalik eta zukurik handiena ateratzea?** ▶ Bizitzak berak, a tope aprobetxatu behar da, konturatu orduko bukatzen da eta.
- **Afrodisiakoa al da marrubiak txanpanarekin nahastea?**  
▶ Izan leike, ez dot sekula probatu baina izan leike.
- **Zerekin konparatuko zenuke heriotza?**  
▶ Misperoekin, usteldu eta gero jaten direlako.
- **Eta bizitza?** ▶ Briñoi batekin, asko gustatzen zaidalako.
- **Egin al duzu inoiz fruta egunik?**  
▶ Hasi bai baina bukatu sekula ez, aspertu egiten naiz.
- **Zein barazki jarriko zenuke zure etxeko balkoian apaingarri bezala?**  
▶ Bainak.
- **Noren kontzertua entzungo zenuke gustura?** ▶ Bryam Adams-ena.
- **Ausartuz gero, zer aldatuko zenuke zure itxuratik?** ▶ Musua, apurtuta daukat eta. Bestela, ilea motz-motz jarri eta kolore gorri bat emango naban.
- **Udaberriaren eraginik igarri al duzu?**  
▶ Zeozer bai, hazkurgia gorputz guztian, polenari alergia edo.
- **Udarako kostaldea ala barnekaldea?**  
▶ Kostia, eguraldi ona, hondartza eta lasaitasuna.
- **Mutilentzat gustatzen zaizun usairen bat?** ▶ Armani kolonia.
- **Fruta erotikorik?** ▶ Piña edo platanua.
- **Probatu duzun frutarik exotikoena?**  
▶ Mangoa eta ez zitzaten gustau, latzegixa.
- **Juergarako beharrezkoa?** ▶ Giro ona eta lagunartia.
- **Herri hauteskundeetan alderdiari ala alkategaiari ematen diozu botua?** ▶ Alderdiari.
- **Kalabaza asko jaso al dituzu?**  
▶ Mutilen kasuan gaztetan igual bai eta eskolan pila bat.

## KILOMETROAK 96 ELGOIBARREN

### DOINUA:

Ligoi bizitza ez da izaten

Kilometroei gure herrian egingo zaie harrera, berriak asko jarri zituen pozik eta alegera. Baina neronek bihotz barrena oraindik daukat minbera, euskaltzaleen antzera, denok kezkatu gera, baldin norbaitek erantzun dezan luza nahi nuke galdera: egun bakarrak sendako al du gaixo dagoen euskera?

Donostian da aurtengo zita asko da bere aiduru, astindu dira hamaika bazter nahastu zenbait inguru. Datorren urtez lan gogor hori guk egin beharko dugu, erderari buruz buru, indartsu eta seguru, Elgoibarrentzat euskaltzaleok hauxe daukagu helburu: egun horretan izan dadila euskararen hiriburu.



IRATI AGIRREAZALDEGI



**OIERKI IGONGAILUAK**

Urrutira deitu gabe bertakook segiduan konponduko dizugu igongailua

☎ (943) 11 35 15 ● 📞 ABERIAK (943) 11 35 15  
Bista Eder, 11 (sotanoa) ● 20600 EIBAR





# Nieves Catarain Catalá

**PSE-PSOeko alkategaia**



**Ezeri buruz idatziko zenuke liburu bat?**

Politikari buruzko egiei eta gezurrei buruz.

■ **Estresatua zaudenean zer egiten duzu?**

Irakurri, asko erlaxatzen nau.

■ **Lo erraza ala zaila daukazu?** Erraz egiten dut lo.

■ **Gogora etortzen zaizun zure bizitzako momentu bat?**

Nire aitak orain urte batzuk izan zuen operazio bat askotan gogoratzen dut.

■ **Politika antierotikoa dela diote.** Gauza guztietan bezala bakoitzak bila diezaioke, erotismoa norberangan baitago.

■ **Zer da lehenago, eskubidea ala betebeharra?** Lotuak daude, eskubideez gain betebeharrak ere baditugu guztiok.

■ **Besteengan onartzen ez duzuna?** Traizioa.

■ **Elgoibarko zein txoko erakutsiko zenioke kanpotar bati? Eta zein izkutatuko?** Herri osoa erakutsiko nioke, den bezala. Ez zaio ezer inori izkutatu behar.

■ **Norekin pasako zenituzke gustura berriketan pare bat ordu?** Jose Borrell-ekin.

■ **Balorerik garrantzitsuena?** Zintzotasuna, sintzeritatea.

■ **Gizonezko bazina, zein lanbide izan nahi zenuke?**

Gizona zein emakumea, medikuntza beti gustatu izan zait.

■ **Lehen muxua, non eta noiz?**

Orain dela 17 urte inguru, udan, Geronan.

■ **Txikitan alkate izan nahi al zenuen?** Aita donostiarra da eta txikitan esaten nion gauza bakarra euskaldun batekin ezkonduko nintzela zen.

■ **Emaiguzu arrazoi bat zuri emateko botua.**

Entzuten den guztia ez da egia ez eta gezurra ere. Guk ez dugu inor engainatzen, kontzientzia oso lasai daukagu eta gure interesa denei begira dago.

**ADINA:** 33 urte

**JAIOTERRIA:** Mont-rás (Gerona)

**IKASKETAK:** Administrarritza

**LANBIDEA:** Administrazio laguntzailea

**EGOERA ZIBILA:** Ezkondua

**ZALETASUN BAT:** Irakurketa

**LIBURU BAT:** "El nombre de la rosa"

**IDAZLE BAT:** Umberto Eco

**PELIKULA BAT:** "En el nombre del padre"

**MUSIKA MOTA BAT:** Nana Mouskuri

**KOLORE BAT:** Urdina

**KIROL BAT:** Hipika

**JANARI BAT:** Kaneloiak katalan erara

**JANTZI BAT:** Amerikana

**USAIN BAT:** Gloria Vanderbilt-en perfumea

## GRAFOLOGIA

■ Emakume apala da. Ez dauka pretensio intelektual handirik. Erresponsabilitatearen zentzu handia du. Egunez egun bizitzea gustatzen zaio. Ez ditu ideal handiak. Pragmatikoa eta egunerokoa da, anpulosoa eta melodramatikoa baino.

■ Bere sinaduran babestua sentitzearen beharra antzematen da, erasotua izateko beldurra. Bere sinadurak barnerapena, babesa eta isolamendua isladatzen ditu.

■ Zuhurra eta arretatsua da eta batzutan ez da bere osotasunean azaltzen, noizbehinka erre-serba mentalak baititu. Sarritan bere "ni"ari



hesi bat jartzen dio. Oraindik ere arbasoekiko lotura nabari zaio.

■ Gutxinaka bere hartzaroen ederra izan zen guztiaz ahaztu eta bera benetan den bezalakoa izaten saiatzen da, zilbor-hesteko lotura astunak, gozoak eta distorsionanteak poliki poliki ahaztuz.

Ahal den neurrian konprometitzea gustatzen zaio nahiz eta batzuetan eguneroko errealitate latz eta dramatikoarekin zerikusirik ez duen manifestu eta diskurtso politikoetan erori. Bere gehiegizko aktibitateak patologia txikiak sor diezazkioke.

Iñaki Mendieta (Grafologia)

Maiatzaren 26ra arte geratzen diren hiru asteetan alderdi bakoitzeko alkategaiari eskainiko diogu orrialde hau.

## San Bartolome eliza (Kronologia)

- San Bartolome eliza eraikitzen ari zen bitartean hainbat gertakari garrantzitsu jazo ziren Euskal Herrian nahiz marko supranazionalan, elgoibartarren bizitzetan eragina izango zutenak.
- 1701. urtean Espainiako oinordeko gerratea hasi zen Borbongo Felipe eta Austriako Carlos artxidukearen artean.
- 1707an, Felipe V.k Valenciako erresumako foruak deuseztu zituen eta lau urte geroago Aragoikoak, mementuz Euskal Herrikoak kanpo geratuz. Hasera haseratik Borbondarrek jarrera zentralista-absolutista erakutsi zuten Frantziako familiaren joera jarraituz. Harrez gero, erregeek portaera politiko berdina izango dute behin eta berriz foruak erasotuz estatu unitarioa, bateratua osatu asmoz.
- 1716an Kataluniako foruen deuseztapena emango da. Hurrengo urtean Felipe V.ak lehorrean zeuden aduanak itsasoko portuetara aldatzeko agindu zuen. Neurri hau Euskal Herriko foruen aurkakoa zen eta herri xehearentzat oso kaltegarria. Izan ere, erabaki honek zenbait merkatariren irabaziak murriztuz gain, kanpotik zetozen janariaren (garia, makailoa, oihalak, azukrea...) garestitzea ekarri zuen. Donostiako

- eta Bilboko merkatarri gehienek, aldiz, pozik hartu zuten erabaki hau Ameriketako harremanak gehiago zabaltzen zitzaizkien eta.
- Egoera honek matxinada sor arazi zuen 1718an. Matxinatuak Bizkaiako zenbait herritan altxatu ziren. Besteak beste, Bilbon diputatu nagusia hil zuten, Bermeon bigarren alkatea eta bere emaztea eta hainbat haundiki eta merkatariren etxeak erre zituzten.
- Gipuzkoan matxinadak gure bailaran izan zuen indarra. Bergaran suteak eta lapurretak gertatu ziren eta matxinatuek bi haundiki hil zituzten. Madrilgo gobernuak gogor erreprimitu zuen mugimendua hamasei matxinaturi heriotz zigorra ezarri zitzaielarik.
- 1728an "Caracas-eko Konpainia Gipuzkoarra" sortu zen. Elkarte hau Donostia eta Venezuelaren arteko merkatal harremanez arduratu zen. Urte berean Aita Larramendi bere lana argitaratzen hasi zen, "De la antigüedad y universalidad del Bascuence en España" liburua izanik lehenena. Geroago, "Conferencias sobre los fueros de Guipuzcoa" idatzietan, Euskal Herrirako marko politiko bateratu bat proposatu zuen.
- 1739an janariaren garestitzeagatik protestaldi bat egin zen Azpeitian. 1746an Felipe V.a, Espainiako

erregea, hil zen eta Fernando VI.aren erregealdiari eman zitzaion hasera.

PELLO  
ARRIETA



## Juan Mugerza

Korrikalaria (1900-1937)



- 1900. eko maiatzaren 6an jaio zen.
- Krosean gailendu zen batez ere. Entzute handia lortu zuen herriz herri kros lasterketa ezberdinetan. Ikustekoa izaten zen Peña, Andia eta Ordoñez korrikalariekin izaten zituen lehiak.
- Espainiako txapeldun izan zen 1917. urtetik 1923. urtera bitartean 5.000, 1.500 eta 800 metrotan. Honez gain Espainiako txapeldun izan zen 110 metro balletan bai eta errelebu taldearekin ere.
- 1920an Amberes-eko Olinpiadan 5.000 metrotako lasterketan korritu zuen zortzigarren postuan geratuz eta 1.500 metrotan seigarren. Olinpiada berean beste elgoibartar batek ere hartu zuen parte. Ignacio Izagirre zen eta pisu jaurtiketan aritu zen.
- 1927an atletismoa laga zuen.
- Elgoibarren izan den korrikalaririk haundienaren izenean Ego-Toki elkarteak Mugerza Memoriala antolatzen du urtero.
- 1937an hil zen.



*Eskulanean  
saiatzzen gara*

*Pastelak  
Tartak  
Izozkiak  
Bonboiak*

San Bartolome 34-35 Tel: 74 03 45



**RAIKO**

San Bartolome 23  
ELGOIBAR

**Baserriko  
haragietan  
berezia**



**Harategi Urdaitegia**

San Bartolome, 16. ☎ 74 06 40

## Zer balio dauka Josebaren Urrezko Botak?

**U**rez jantzi dute Qatar-eko mundialean Joseba Etxeberria. Kristalezko kutxa batean gordetako urrezko bota ez diote edonori ematen. Joseba Etxeberria 20 urte-  
tik beherako munduko golegilerik onena da, mundialean sartu zituen zazpi gol eta egin zituen hiru paseri esker lortutako hamazazpi punturekin. Irailean 18 urte beteko dituen futbolari gazte

honi poztasun handia eman dio sari honek baina Josebak argi dauka “inportanteena hankak lurrean izatea” dela. Urrezko bota honek urrezko aukerak eskainiko dizkion dudarik ez dago. Ondorengo lerroetan, bere ingurukoen eta zenbait herritarren iritzia jaso nahi izan dugu.



*Arantza Lizardi*  
Josebaren ama

“Demasa. Uste dut orain arte Espainian inork ez duela horrelakorik lortu. Txiki-txikitatik egin duen lanak merezitako saria izan da. Lan sakrifikatua da, eta aurrera egiteko benetan gustatu behar zaizu eta oso barrutik bizi, Josebak bizi duen bezala. Guretzat ez da horrenbesteko safrikizioa izan. Bueno, egia esan, lehenengo urtean arropa mordo bat garbitzea tokatu zitzaidan, eta horregatik zenbat aldiz, baina brometan beti, egin izan dioten errietan! Baina etxeokoa oso harro gaude, eta aita futbolaria izandakoa, eta nere anaia, oso Errealzalea dena, zer esanik ez! Benetan pozik gaude”.

*Jose Mari Arakistain*

EIBAR taldeko entrenatzailea

“Sari hau gauza handia da. Notizia jakitien poz handia hartu genuen. Hamazazpi urtekin hori lor-tziak asko esan nahi du, honek Errealian titular izateko aukerak emango dizkio.

Elgoibarko herriarentzat oso inportantia da, harro egoteko modukoa.

Ekipo haundixak gaztiei begira egoten dia eta posible da ofertaren bat ere eukitzia baina inportantena da nere ustez hemendik aurrera hasiko dela benetan futbolian jokatzeko. Orain arte egin dabana oso ondo dao baina orain dator benetako lana, lan zaila, ekipo haundixan jokatzia, hain zuzen”.



*Ramon Mujika*  
Udal Kirol Teknikaria

“Herriak behar ditu horrelako notizia on eta pozgarriak herritarren animoa altxatzeko. Ziur nago C.D. Elgoibar elkar-teak Errealaren kantera berri-tzen jarraituko duela; ez ditugu ahaztu behar Errealean ari diren Caro, Ibarra, Elgoro-Iribe, Etxabe eta Gurrutxaga. Kirol aldetik, Joseba guztien ganetik nabarmendu da eta datozen urteotan, futboleko ez bakarrik, baita txirrindularitzan, esku pilotan, eskubaloian eta atletismoan ere “Etxeberria” gehiago aterako diren itzaropena daukat. Eta nere aldetik, zorterik onena opa nahi diot Josebari hain zaila den futbolaren mundu horretan aurrera egin dezan”.



*Jose Aizpuru*  
ikaslea

“Oso ondo dao horrelako gauza bat lortzia. Etxeberria oso futbolari ona iruditzen jata, gustatzen jata bere estilua. Eskerrak Errealian jokatzeko daban, ze ni Errealekoa naiz, nere ekipoa da.

Mundiala jarraitu dot, partidu batzuk ere ikusi ditzut, Espainia-Arjentina eta Espainia-Portugal eta bixetan oso ondo jokatu dau. Nere ustez Errealian jokatzeko jarraitu bihar dau, penia emango zian talde haundixak etorriko bazian eta Errealetik eruangoz bazaben”.



## laz baino partaide gutxiagok

## MOTZAK

### 18 domina judoan

Ibai gimnasioko neska mutilek 18 domina, urrezko lau, zilarrezko zazpi, eta beste zazpi brontzezkoak, eskuratu zituzten joan den astean Plaentxin izan zen II. Haurren Judo Txapelketan. Emaiza ezin hobe hauek berriro lortzeko asmoarekin joango dira larunbat honetan Legazpian izango den txapelketara.

### Eskolarteko Gipuzkoako Infantilen Txapelketa Mintxetan

Larunbat honetan, hilak 6, Eskolarteko Gipuzkoako Pistako Atletismo Txapelketa burutuko da Mintxetan infantilen kategorian. Goizeko 10,30etan hasiko dira 3.000m martxa, 2.000m martxa, 150 metro eta 3.000 metrotako lasterketak eta luzera jauziko frogak nesketan zein mutiletan.

### Gipuzkoako txapelketarako denborak

Bestetik, Mintxeta Atletismo taldeko Jose Antonio Ruiz eta Imanol Santos korrikalariak Gipuzkoako Txapelketarako gutxieneko markak egin zituzten joan den astean Tolosan. Ruizek 53''30 egin zuen eta Santosek 54''14ko denbora.



**E**lgoibarko Duathloiaeren bostgarren edizioan iaz baino korrikalari gutxiagok hartu zuen parte. 1994ko edizioan 200 inguruk hartu zuen parte eta larunbat arratsalde eguzkitsuaren berotasuna lagun, 118 kirolari abiatu zen arratsaldeko 3,30etan Plaza Handian antolatutako helmugatik. Elgoibartarren partehartzea kopuru aldetik behinik behin, oso eskasa izan zen. Bik bakarrik korritu zuten, bat Jose Felix Iglesias, 56. lekuan sartu zena eta bigarrena Iñigo Ansola. Azkena sartu zen Urgaziko korrikalaria helmugan, bi ordu, hamar minutu eta 8 segundu behar izan zituelarik 43 kmko ibilbidea betetzeko, irabazleak berrogei minutu gehiago. Argazkikoak lehen lau sailkatuak eta nesketan txapelduna izan zena agertzen dira.

### SAILKAPENA

#### • Seniorrak:

- 1- Eneko Llanos (1:29:13)
- 2- Jon Astigarraga (1:30:30)
- 3- Jesus De la Fuente (1:31:49)
- 4- Joseba Ortega (1:32:19)

#### • Juniorrak:

- 1- Eneko Llanos (1:29:13)

#### • Emakumezkoak:

- 1- Nerea Martinez (1:47:29)
- 2- Miren Orbanje (1:55:56)
- 3- Susana Apraiz (2:00:15)

#### • Beteranoak I:

- 1- Roman Hernandez (1:37:49)

#### • Beteranoak II:

- 1- Eduardo Macua (1:49:06)

#### • Elgoibartarrak:

- 1- Jose Felix Iglesias (1:46:39)
- 2- Iñigo Ansola (2:10:08)

## AGENDA

### FUTBOLA Mintxetan Larunbata 6

16,30: Haundi-Amorebieta

18,15: C.D. Elgoibar - Real Sociedad (Beteranoak)

### Igandea 7

10,00: Urki A - Almen (Jubenilak)

12,00: Elgoibar - Anaitasuna (Kadeteak)

13,15: Eibar Urko - Real Union (Jubenilak)

16,30: Elgoibar - Ordizia (Jubenilak)

### FUTBITOA Urasandin Igandea 7

9,00: Rua - Fotero D. Kalimotxo - Rebel Urbi

10,00: La Maxia - Resto Mundo Oraiko - Berrogei duro

11,00: Pedruskos - H. Verboten Kosakos - King-Kong

12,00: S. Rokatarrak - G. Garcia D.T. Veterans - Uni. Chile

13,00: Mimox - Karkis

## EMAITZAK

### FUTBOLA

Amaroz 2 - Elgoibar 2 (Jubenilak)

Zalla 1 - Haundi 0

Elgoibar 4 - S. Herrera 3 (Infantilak)

Elgoibar 3 - Miren Bihotza 0 (2. errejionala)

Martutene 1 - Elgoibar 4 (Kadeteak)

### ESKUBALOA

Pagoaga Elgoibar 17 - Urnietako 8 (Kadete neskek)

Pagoaga Elgoibar 16 - Bidebieta 9 (Kadete neskek)

Elgoibar 21 - Ereintza 21 (Kadete mutilak)

Usurbil 29 - Elgoibar 22 (Jubenil mutilak)

### FUTBITOA

G. Garcia 0 - Kosakos 0

Karkis 1 - Pedruskos 3

H. Verboten 0 - S. Rokaterra 4

U. Chile 2 - Mimox 4

King-Kong 2 - D.T. Veterans 5



## DIA DAS LETRAS GALEGAS 1995

**6 LARUNBATA**  
**14,00:** Bazkaria  
**16,00:** Galizia Plazan Chaves joko lehiaketa

**7 IGANDEA**  
**12,00:** Ezkordtu eta ezkongabeen artean futbito partidua ikastetxean

**12 OSTIRALA**  
**19,00:** Txapliguak eta Nueva Alaska musika taldearekin jaien hasiera  
**Jarraian Olagarro dastaketa**  
**22,30:** NUEVA ALASKA orkestrarekin **berbena**

**13 LARUNBATA**  
**10,00:** Txapliguak  
**10,30:** Kalejira "Grupo de Gaitas e Danzas do Concello de o Irixo" rekin  
**11,00:** Galiziako jakien dastaketa Urasandiko ikastetxeko plaza  
**12,00:** "Grupo de Gaitas e

Danzas do Concello de o Irixo"

**16,30:** Umeen jolasak sariekin

**18,00:** Galiziako jakien dastaketa

**19,00:** "Tarantela Orkesta"

**22,30:** "Tarantela Orkesta" rekin **berbena**

### 14 IGANDEA

**10,00:** Txapliguak

**10,30:** Parrokian hildako bazkideen aldeko Meza gailagoz, "Grupo de Gaitas e Danzas do Concello de o Irixo" ren partaidetzarekin

**11,30:** "Grupo de Gaitas ..." rekin **kalejira**

**12,30:** "Grupo de Gaitas ..." Urasandiko ikastetxean

**17,00:** "Grupo de Gaitas ..." taldeari agurra

**19,30:** Jaien bukaera

## 37 talde bilduko dira Plazan Prebentzio Eguna ospatzeko

**H**erriko kolektibo guztiak edo gehienak behinik behin, Errotatxo elkarteak luzatutako gonbidapenari erantzunez, Plaza Handian bilduko dira bihar, larunbata, goizeko 11etatik eguerdiko 2ak bitartean Prebentzio Eguna ospatzeko asmoz. 37 talderen iharduerak, bata bestea-gandik guztiz ezberdinak, ikusteko aukera izango du bertara hurbiltzen den guztiak, artisautza, bertsolariak, dantzak, kirolak, txaranga, zuzeneko irrati emankizunak, trikitilariak... Plazatik bertatik eguerdi aldera abiatutako da "Bide bakarra prebentzioa, trafikanterik ez" lema izango duen manifestazioa. Arratsaldean futbolaren txanda izango da. Lehen aldiz, Elgoibarko futbolariak eta Real Sociedad taldeko figura ezagunak aurrez aurre ikusteko aukera izango dugu arratsaldeko 6,15etan Mintxetan izango den beteranoen futbol partiduan. Errealekoak izandako Satrustegi, Zamora, Alonso, Idigoras, Gajate, Gorriz e.a. C.D.ko jokalarizandako Lasa, Apellaniz, Moskote,



Ziolar, Silva, Nico eta Anjel Etxabe, Lendinez eta beste batzuen aurka jokatu dute. Eguna amaitzeko rock kontzertua izango da Maalan Kokeraino eta Koska taldeen eskutik.

### Pepe Reiren hitzaldia

Joan den ostegunean *Egin* egunkariko Pepe Reik korrupzioa eta nar-kotrafikoari buruz hainbat datu eman zituen jakinminenez hurreratu zen entzulegoaren aurrean. Kultur Etxeko hitzaldi gela bete egin zen kazetari ikerlariaren hitzaldia entzuteko.

## Antzerkirako sarrerak doan banatuko ditu Txankakuak

Datorren ostiralean, hilak 12, Herriko Antzokian taularatuko den Karraka taldearen azken lana, "Pecata Minuta" izeneko antzezlan ikusteko sarrerak doan banatuko ditu Txankakua Merkatari Elkartek bere bezeroen artean. Txankakua Merkatari Elkartek, bere buruaren publizitatea egin nahi du kanpaina honekin, eta bide batez antzerkia bultzatu. Honetarako akordio batera heldu da Udalarekin. Hitzarmen honen arabera, urtean bi antzezlan subentzionatuko ditu Txankakuak, bata euskaraz eta bestea gazteleraz. Batetik diru laguntza bat emango dio Udalariz antzetzaldeak ekartzeko eta bestetik, sarrerak banatuko ditu bezeroen artean. *Karraka* taldearen obra ikusteko 150 sarrera eskuratu ditu Txankakua Elkartek eta hilaren 11n, elkarteko bazkide diren denda bakoitzak bi sarrera banatuko ditu bere bezeroen artean. Karraka taldearen emankizuna Herriko Antzokian ikusi ahal izango da hilaren 12an, gaueko 22,15etatik aurrera.

## Herri Urratsera Autobusak

- **Maiatzaren 14ean, SENPEREN.**
- **Prezioa: 1.000 pta (bazkideak 700 pta).**
- **Izena emateko: ELGOIBARKO IZARRA K.E.**

ANTOLATZAILEA:  
ELGOIBARKO IZARRA  
Kultur Elkartea



LAGUNTZAILEAK:  
ELGOIBARKO UDALA  
GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA



### Maria Urizar

ileapaindegi  
mixtoa

Errosario 9-1ezk.  
☎ 74 44 89 ELGOIBAR

### JOSE ANGEL ZABALA URDAITEGIA

Berezitasunak:

Bakilaua

Txerrikiak

Merkatu Plaza 33-34

## IKASBIDAIA

### Lehen aldiz etxetik kanpo gurasorik gabe

Ikasle guztien ilusioa da ikasbidaia. Tokia aukeratu, eguzkia, hondartza eta juerga tokiak normalean, eta gurasoen itzala atzean izan gabe, beraien kasa ibiltzeko ilusioa gauzatzen du ikasbidaia. Aurten ere izan berri dira, Torremolinosen, hain zuzen ere.

Leire Zubiaure eta Ainara Urkiri izan dira BARRENen beraien esperientzia kontatzen. Leirek esan digunez, "bazirudien ez genuela ikasbidairik izango eta nere kuadrilia mobitzen hasi zan. Azkenian, kuadrila guztiak elkartu eta danen artian antolatu dogu guztia". Apirilaren 12an atera ziren Elgoibartik. Autobusez egun osoko bidaia egin eta gero iritsi ziren Torremolinoseara. Bertan 10 egun igaro dituzte, hotelean batzuk eta apartamentuetan beste batzuk baina guztiak pentzio osoko erregimenean. Pertsona bakoitzari 30.000 pezeta inguru kostatu zaio bidaia. Kopuru hori lortzeko desfilea egin zuten Txixarran, polborioiak saldu zituzten Gabonetan, pegatinak jarri izan dituzte ikasbidaia alde dirua lortu asmoz, hileroko 1.000 pezeta sartzen zuten bakoitzak botean eta horrez gain, bakoitzak 16.000 pta gehitu behar izan zituen poltsikotik. 85 ikasle joan dira eta hauen arduradun bezela hiru neska mutil, bi mutil elgoibartar eta Itziarko neska bat. Hiru




hauei bidaia ordaindu zitzaie eta horrez gain beste 10.000 pezeta eman zieten diru sari gisa.

Egunez hondartzara edo pistinara, gauz Torremolinoseko diskotekak ezagutu eta zenbait irteera egin zituzten: Sebillan, Granada, Marbella, Puerto Banus, Cordoba eta abar ezagutzeko aukera izan zuten. Denek ekarri dute

oroitzapen ona, oso ona. Ainarak aitortu digunez, "jende asko negarrez bueltatu zen eta hasi gera pentsatzen bi urte barru edo berriz ere horrelako zerbait antolatuz".

#### Datorren urtean

Institutuko zuzendaritzak, ikasbidaia geroaz hitzegin digu. Azaldu digutenez Herriko Institutuko gurasoen ordezkariaren asmoa da datorren ikasturteko aurrera ikasbidaia Batxilergo amaitzean, selektibitatearen ondoren antolatzea. Lehen institutuak berak antolatzen zuten. Gerora ikasleak izan dira ardura hartu dutenak eta hemendik aurrera badirudi ikastetxeak berreskuratuko duela antolaketaren ardura, ikasleen, irakasleen eta gurasoen partaidetza ziurtatuz.



**Kirol munduko** "izarrak" bildu ziren ostegunean Mekanikako hitzaldi aretoan, lehen planoan Pello Ruiz Cabestany, hurrenez hurren Tito Irazusta kazetaria, moderatzailea, Joseba Etxeberria futbolari elgoibartarra eta Jon Odriozola Gewis taldeko txirrindularia, ikasketak eta kirolaren inguruan bakoitzak bere bizipenak kontatzeko. BBBko eta REMeko bigarren mailako 250 bat ikasle jakinminez entzun zituzten kirolariak ikasketak eta kirola konpajinatzearen inguruan esateko zeukatena.



## Etxebizitzak

ETXE BAT daukat alokatzeko. Guztiz jantzita. Hiru gela, jangela, sukaldea eta igogailua.

☎ 74 37 41

PISU BAT erosiko nuke.

☎ 74 08 20

Gauzez deitu

APARTAMENDU BAT daukat Jakan, udaran alokatzeko.

☎ 74 15 22

APARTAMENDU BAT daukat Benidormen alokatzeko. Levanteko hondartzako lehen ilaran. Igerilekua eta aparkalekua.

☎ 74 16 57

ETXEBIZITZA BAT saltzen da. Santa Klara 24, 5-B.

☎ 74 32 98

## Bestelakoak

Asteazkenean PERIKITO URDIN BATEK ihes egin zuen Santa Ana kalean, erreka aldera. Norbaitek aurkitu badu, mesedez dei dezala.

☎ 74 27 06

KATU BAT galdu nuen Ermuaranbide kalean orain dela bi aste. Siamesa da, marroiska, emea eta tratamenduan dago gaisorik dagoelako. Topatu duenak deitu dezala.

☎ 74 35 48 Puri

35-45 urte bitarteko JENDEA EZAGUTU NAHI NUKE, gizon nahiz emakumezkoak, mendizaleak, astebukaeretan mendi irteerak egiteko. Deba Behea ingurukoak.

☎ 76 31 35

CARITASek ume txikiak mahaiari esertzeko AULKI BAT behar du.

☎ 74 15 09 ☎ 74 12 57

## Salerosketak

NINTENDO JOKOAK saltzen ditut: "Pro Wrestling serie deportes" eta "KO Boxing".

☎ 74 21 48 Xabier

OPEL CORSA SWING 1.2 BAT saltzen dut. 5 atekoa. Oso egoera onean. SS-AB.

☎ 75 60 32

3,5 pulgadako disketeradun ORDENAGAILU BAT erosiko nuke.

☎ 74 07 30 Unai

TAPIFLEX KOLTZOIA ETA BURUKOA saltzen ditut, 1,50 x 1,90 neurrikoak eta oso egoera onean. Dena 20.000 pta.

☎ 74 03 69 Kristina

ERREPIDE BIZIKLETA BAT saldu nahi dut. "Contini" kuadroa eta "Simano" tresnak ditu. Prezio ona.

☎ 74 00 67 Martin

Jatorduetan

Super nintendo KONTSOLA BAT SALTZEN DUT.

Mando batekin, 8 jokurekin eta adaptadorea Amerikar eta japoniar jokuentzat. Dena 23.000 pta

☎ 74 05 80/74 18 34 Asier

BIKOTE LOGELA bat, LOGELA bat, MATRIMONIO LOGELA puente bat, SALA bat eta SUKALDE bat SALTZEN DITUT trasladoagatik.

☎ 74 33 19

Itik 3etara / 7,30etatik 10etara

## Agurrak

GERMAN, Mutrikun ekin behar diozun bideak abenduaren 17an Donostian izango du azkena. ANIMO eta ez gelditu erdibidean. Elgoibarko Izarrako kuadrila.

Maiatzaren 4an hamabi urte betetzen dituen MIREN ALBARRANI zorionak eman nahi dizkiogu Maite Arenal eta Eluska Eskuderok. ZORIONAK MIREN!

## Garajeak

GARAJE BAT dut alokatzeko pista beltzaren azpian, Institutu parean. Marraduna.

☎ 74 39 19

GARAJE BAT saltzen dut ANAYAK edifizioan. 15m<sup>2</sup> eta bi planta.

☎ 74 25 01 / 10 82 43

GARAJE itxi bat saltzen dut Santa Ana 46 zenbakian

☎ 74 13 67

## Lana

ETXEKO LANAK egiteko prest nago. Egun osoan edo orduka. Gauzez PERTSONA NAGUSIAK ere zainduko nituzke.

☎ 75 62 57

Mutil gazte amerikarra INGELESEKO KLASEAK emateko prest dago. Mendaron eta baita interesatuen etxeetan ere.

☎ 75 62 13 Alex

ENPRESARIALESETAN DIPLOMATUA ofizina lanak edo beste edozein lan egiteko prest dago.

☎ 74 39 89 Mari Karmen

HAURRAK ZAINDU edota ETXEKO LANAK egiteko prest nago.

☎ 74 43 16 Mari Karmen

Goizez

## APIRILEAN

### Hildakoak

- ▶ Tomas Zelaia Etxaniz, 64 urte (apirilak 1)
- ▶ Santiago iriondo Barrutia, 93 urte (apirilak 2)
- ▶ Santiago Sebastian Iriondo Barrutia, 93 urte (apirilak 3)
- ▶ Elisa Mendicute Muguruza, 77 urte (apirilak 5)
- ▶ Miguel Ibañez Begiristain, 74 urte (apirilak 6)
- ▶ Maria Agirre Etxaniz, 75 urte (apirilak 9)
- ▶ Maria Isabel Romero Mora, 28 urte (apirilak 19)
- ▶ Justo Arriola Aristondo, 82 urte (apirilak 30)

### Jaiotakoak

- Alberto Landa Mendiolagaray (apirilak 2)
- ▶ Sergio Arroyo Fernandez (apirilak 6)
- ▶ Miren Viñe Usatorre (apirilak 17)
- ▶ Patricia Rascalvo Sol (apirilak 19)
- ▶ Adrian Estevez Salazar (apirilak 20)

### Ezkondutakoak

- ▶ Roberto Daniel Oleaga Barrietabeña eta Arantzazu Barrenetxea Aranburu (apirilak 22)

# ASTEAN ZEHAR

## 5 OSTIRALA

22,00 **DIPOSITIBA EMANALDIA**

Gaia: Andeak (Iñaki Etxabe)  
✓ Kultur Etxean

22,15 **GIPUZKOAKO BERTSOLARIEN TXAPELKETA**

Hirugarren saioa  
✓ Herriko Antzokian

## 6 LARUNBATA

10,00 **ATE IREKIEN EGUNA IMHn**

Eguerdian, hitzaldia areto nagusian  
Antolatzailea: IMH

10,30 **ESKOLARTEKO GIPUZKOAKO ATLETISMO TXAPELKETA**

✓ Mintxetan

15,00 **PLATER TIRAKETA**

✓ San Pedro auzoan  
Antolatzailea: La Union

17,00 **GIPUZKOAKO BOLO TXAPELKETAREN FINALA**

✓ San Pedro auzoan

19,30-22,15 **ZINEA**

"La muerte y la doncella"

20,00 **BATZOKIKO URTEURRENEKO AFARIA**

✓ Batzokian

## 7 IGANDEA

07,00 **GORBEARA TRABESIA**

✓ Irteera Plaza Handitik  
Antolatzailea: Morkaiko M.E.

12,30 **BANDAREN KONTZERTUA**

✓ Herriko Antzokian

16,30 **ZINEA**

"Este muerto está muy vivo"

19,30-22,15 **ZINEA**

"La muerte y la doncella"

## 8 ASTELEHENA

22,15 **ZINEA**

"La muerte y la doncella"

## 9 ASTEARTEA

22,15 **ZINEA**

"Quemado por el sol"  
(Ikuslearen eguna)

## 10 ASTEAZKENA

10,00-12,30-19,00 **IRUDI BIZIAK**

Ertainetako ikasle eta gurasoentzat  
"Los peores años de nuestra vida"  
✓ Herriko Antzokian

## 12 OSTIRALA

22,15 **ANTZERKIA**

"Pecata minuta" Karraka Taldea  
✓ Herriko Antzokian

### DIA DAS LETRAS GALEGAS

Larunbata, 6

14,00 Bazkaria

16,00 Chaves tiraldia Galiza Plazan

Laguntzailea: Gabi jatetxea

Igandea, 7

12,00 Futbito partidua

Ezkundu eta ezkongabeen artean

Ostirala, 12

19,00 Jaien hasera eta Nueva Alaska taldearen jarduna

Jarraian olagarro dastaketa

22,30 Nueva Alaska taldea

ANTOLATZAILEA: GALIZIA ETXEA

### PREBENTZIO ASTEA

LARUNBATA 6

11,00 Kolektiboen kontzentrazioa Plaza Handian

13,00 Manifestazioa "Trafikoaren aurka eta prebentzioaren alde"

18,15 Futbola

Real Sociedad-Elgoibar (Beteranoak) Mintxetan

23,00 Rock kontzertua

Taldeak: Kokoteraino eta Koska Atsedendian, Dakintaren txiste ekitaldia Maalan

ANTOLATZAILEA: ERROTATXO

## txandak

### FARMAZIAK:

EGUNA	EGUNEZ	GAUEZ
6, larunbata:	Etxeberria	Etxeberria
7, igandea:	Etxeberria	Etxeberria
8, astelehena:	Ormazabal	Ormazabal
9, asteartea:	Ormazabal	Ormazabal
10, asteazkena:	Ormazabal	Ormazabal
11, osteguna:	Ormazabal	Ormazabal
12, ostirala:	Yudego	Yudego

### OKINDEGIA:

12, igandea: BOUTIQUE DEL PAN

## ZINEA

### Quemado por el sol

Zuzendaria: Nikita Mikhalkov  
Antzezleak: Oleg Menchikov, Nikita Mikhalkov, Ingeborga Dapkounaité.

Komedia, drama, gertakari politikoak eta sentsazio sotilenak nahasten dituen maitasun istorioa da. Dimitrik 10 urte daramatza etxetik kanpo. Itzultzean gauzak aldatu egin dira, Maroussia, beste batekin ezkondu eta alaba bat dauka. 1991. urtetik gaur arte, Errusian gertatu denari buruzko erreflexioa egiten du Mikhalkov-ek.

### La muerte y la doncella

Zuzendaria: Roman Polanski  
Antzezleak: Sigourney Weaver, Ben Kingsley, Stuart Wilson.

Hiru pertsonairen elkar topaketa gertatzen da arrezife zurrunbilotsu baten alboan dagoen inkomunikatutako etxe batean: torturatua izandako emakume bat, honen senarra eta ustezko torturatzailea. Senarrak inpotentzia izugarria sentituko du, ez duelako jakingo zein jarrera hartu: emakumeak sentitzen duen nazkarekin identifikatu ala ezezagunaren ustezko errugabetasuna apoiatu.

# ELGOIBARKO INSTITUTUA

**Ikasle bakoitzari bere gaitasunaren araberako erantzuna eta irtenbidea eman nahi dion eskola**



**CARMELO MENEZO**

Orientazio Departamenduak gure seme-alaben etorkizuna bideratzen du. Barne Araudiaren ildotik gure seme-alaben heziketan arduradun hurbil gara.



**INAKI ELUSTONDO**  
Orain Institutu hau etorkizun handiko

proiektua dugu. Zentruan oso lantalde profesionala eta inplikaturik dago.



**ITZIAR AIZPITARTE**

Gurasoek ikastetxean parte hartzea garrantzitsua da, akademiko eta ekonomia arloko informazioa jasoz eta proiektu berritzaileetan parte hartuz.

## Gurasoen iritziak

L. M.

**MURUAMENDIARAZ**

Eskualde honetako beharrianak betetzeko adinako hezkuntz eskaintza zabala izateak, gurasoei nolabaiteko ziurtasun eta lasaitasuna ematen digu, honek gure seme-alabek izan lezaketen eskolako porrot-arriskua gutxituko lukeelako.



**ITZIAR LIZARRALDE**

Orain arte emandako urratsekin gustura nago eta konfidantza osoa daukat



**AURREMATRIKULA EGITEKO EPEA: MAIATZAREN 4tik 18ra bitartean**